

Goierri tarra

271. zenbakia 2004ko azaroak 19



Dantza
Beasainen

ESNE

PASTEURIZATUA

IZTUETAN



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal

ZENTRO MEDIKUA

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN

943 88 22 51

R.P.S. 32004



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



FREELANDER BERRIA **NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA**


- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR
Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



BERTSOTAN**Iñaki Apalategi****Gaztaina erreak**

Jadanik salgai dago neguko
fruiturik ezagunena
baina prezioz jasanda dago
biribilketa zuzena
urte hauetan sarri ordaintzen
degu euroan dozena
baina ahoan eta eskutan
sumatzen da gozamena

Herri askotan kale izkinan
danbolina ageri da
eta jendea bere parean
maiz geratzen da begira
erretakoen gustua eta
beroa eskertzen dira
baina hanketan sasoirik bada
joan zaitez bila mendira

Goierritarra**HAMABOSTEKARIA****Argitaratzailea:**

Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, I124 posta-kutxa **ORDIZIA**

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre**Maketazioa:** Mikel Albisu**Publizitatea:** Argider Mujika**Zenbaki honetako**

kolaboratzaileak: Inazio
Usarralde, Edurne Huesa, Iker
Markinez, Idoia Noain eta Iñaki
Apalategi.

Inprimaketa: Gertu

(Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua:

37/76

Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

AURKIBIDEA**4. Iritzia:** Inaxio Usarralde**5. Ingurugiroa:** AHT**7. Errezeta:** Onddo risotoa**Aholkua:** Osasuntsu argaltzeko
aholkuak**8. Kate Motzean:** Iñaki Leturia**9. Elkarrizketa:** Jose Javier Cuadrado
'Karratu'**12. Elkarrizketa:** Esne pasteurizatua
Iztueta beserrian**16. Erreportajea:** Beasaingo
dantzaren historia**19. Garai batean...:** Gaztainak**22. Mundutarrak Goierriin:** Laura
Tisalema**20. Gazteleku:** Etxebizitza guztion
eskubidea**Goierritarra** Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro
Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:**GOIERRIKO UDALAK**

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gaboria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Inazio Usarralde

Gaurko
guraso
askojakin eta
modernook
ikastolatik
ludotekako
aparkalekura
ibili obi gara,
tarteana musika
eskola edota
ingeles
akademietako
aparkalekueta-
tik pasatuta.

Hau da jolasgurea, hau!

Zein ederra den jolas egitea, hala ez da!? Honetaz zerbait dakitenei entzuten diegunez, pertsonok mundura sortzen garen une beretik horixe dugu ganorazko eginkizuna, jatearekin batera: jolas egitea. Gainera, aditu horien arabera, ume garaiko jolas horietan joan ohi gara oinarritzen pertsonok gure nortasuna. Eta hori bistakoa da, bistakoa denez.

Izan ere, jolas horietan hasten gara gure aurreneko arrakasta gramoa irabazten; baita porrotaren mikatza probatzen ere. Jolas horien bitartez egin ohi ditugu gure lehenbiziko gizarteratzeko ahaleginak: besteen aurrean lotsa galtzen hasten gara, jolasen arauak lagunekin batera adostu eta gero horiek errespetatzen ikasi, jolas denboran aurkari eta jolas ondoren lagun nola izan gaitezkeen jabetzen gara eta garrantzitsuenak: ezin dugula beti ibili guk nahi duguna eginez! Esan bezala, gure nortasunaren zimentarriak izango direnak sendotzeko ezin hobeak dira txikitako jolasak.

Hau horrela izanda, benetan harri-garria da ikustea zein denbora gutxi irauten duen jolas garai horrek gutako bakoitzarengan. Bizitzaren makinatzar-rak berehala nahi baikaitu produkzioan. Alegia, urte gutxi pasatuta entzungo dugu horrela moduko errieta: "utzi umekerik eta heldu zerbaiti, dedio!" Eta kanpotik horrelakoak entzuten baditugu, gu geu ere oso urte gutxiarekin hasten gara horrelakoak esaten: "Bo, bo, bo nei utzi paken... Horiek umeen kontuk die-ta!" Beste era batera esanda, lurrean azaltzerako nahi izaten dugu nagusien pare izan, egia esanda, hori benetan zer den askorik jakin gabe. Gero, garaia joan ondoren, gehienak berehala damutzen dira alferrik galdutako aukeraren penaz. Baina, mundu honetan zerbait argi baldin badago hori zera da: joandako denbora ez dela atzera itzultzen inondik inora.

Jolas kontuetan ari garenez, gaur egun umeak gustura edukitzeko gura-

sook darabiltzagun teknikak berrikus-tea interesgarria izan daiteke. Eta bel-durrik gabe esan dezakegu, gure ingu-rura pixka bat begiratu gero, gaurko guraso askojakin eta modernook apar-kaleku teknikatik hara ezer gutxi egi-teko gai garela: ikastolatik ludotekako aparkalekura ibili ohi gara, tarteana musika eskola edota ingeles akade-mietako aparkalekuetatik pasatuta. Eta a zer nolako tragedia baldin eta egu-nen batean aparkaleku hauetakoren batek huts egiten badigu?

Hau ikusirik ez nau batere harri-tzen behin lagun bati entzun nionak. Agidanean, guraso batek galdetu dio behin bere seme edo alabari: "aizu, maitea, eta zuk zer nahi duzu opari-tzea?" Eta haurrak zapla! hauxe eran-tzun omen zion: "Nik? Zurekin jolas egiteko denbora gehiago!"

Egun hauetan, Lazkaon, Goierriko Euskal Eskolari esker berrogei bat la-gunok bizi izan dugun esperientzia bikaina izan dela aitortu nahi dut de-non aurrean. Euskal jolasei buruzko ikastaroan ibili gara Urtxintxakoek bi-kain gidatuta. Ikastaro honetan pare bat gauza atera ditut argi: bat) ikasi ditugun jolasak beti-betikoak dira. Ez dira aldatu batere eta, beraz, ikastea baino gehiago gogoratzea izan da gehiago. Eta bi) den-denok ez ginen gurasoak izango, baina asko bai; eta gehienok ikasiko genituen jolasak ge-ro etxera joan eta gure umeekin jolas-teko aprobetxatuko genituelakoan izena eman genuen ikastaroan. Bai, zera! Ez dut ukatuko asmo hori tarte-an izango ez zenik. Baina, hori bezain egia da beste honako hau ere: bi aste hauetan estresaren indizeak gainbehe-ra nabarmena izan du Lazkaon eta gu-rasook izan gara ikastaroari probetxua ateratzen aurrenekoak. Izan ere, de-nok geure barruan ume bat darama-gula esan ohi da eta, egia esan, zin degizuet tarteka lo dagoen umetxo hori esnatu eta libre uztea merezi duela.

Arkupé

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

GERTU abokatuak



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

ENPRESA ZERBITZUAK

ASEGURUAK

Kale Nagusia, 2
BEASAIN

Tel.: 943 16 21 92

Faxa. 943 88 36 33

gertu.asesoria@terra.es

www.gertuasesores.com

Trenbide sare moderno eta sozialaren alde

Abiadura Handiko Trenari ezi!

Ahal dudan guztietan, Irun-Brinkola aldiriko trenak erabiltzen ditut beste hainbat goierritar bezala, trenaren abantailak ederki asko baloratuz: kutsadura oso txikia, lasaitasuna, ia istripurik ez izatea, salneurri egokia....

Aldiriko trenen zerbitzua nahiko ona dela esan badezakegu, berriz ibilbide luzeetako penagarria da oso: tren zerbitzu gutxi, lotura eskasak eta atzera-penak, Gasteiz, Iruñea, Bilbo eta Euskaditik kanpora joateko.

Dugun ohiko tren sareak askoz zerbitzu hobea goa eman zezakeen, Espainiako Gobernuak 1987. urtean onartutako Trenbide Sareko Garraioko Plana bete izan balu. Horrelaxe diote Estatu mailako ekologistek, AVEa dela eta. Beraien ustez, ez PSOEek ezta PPK indargabetu ez duten plan hori aplikatuz gero, gaur egun, Madril-Sevillan (abiadura ertaina 209 km/orduko) eta Madril-Lleidan (gehieneko abiadura 200 km/orduko), lortutako abiadurak, Estatu osoko tren sarean posible izango lirakeke, AVEk sortutako ingurumen inpaktu handiak sortu gabe, zerbitzu handiagoa eskainiz, salneurri egokietan eta energia gastu handirik gabe.

Baina gaur egun Euskadin, EAJk itsumustuka Abiadura Handiko Trena eraiki nahi du garraio arazoak konpontzeko asmoz, PSE eta PPren onarpenare-



kin eta hainbat instituzioen babesarekin. Iaz Eusko Jaurlaritzak "Ingurumena eta Garraioa" txostenean, EAEko garraioen arazoak zeintzu diren garbi asko azaldu zituen: salgaien garraioa gehienbat errepidez egitea eta hiriburu inguruetan zein eskualde artean ibilgailu pribatua gehiegi erabiltzea. Abiadura Handiko Trenak arazo horiek konponduko al ditu?

Abiadura Handiko Trenak (AHT) hiriburuak soilik lotuko dituen trenbide sare berria izango da, 180 kmkoa, ia horien erdia tuneletan zehar (78'5), 250km/orduko abiadura gehienez izango duena eta hiriburuez gain, oso toki gutxitan geratuko dena. Horrela garraio arazoentzati txiki bati bakarrik aurre egingo zaio, hiriburuen arteko mugikortasuna mu-

gikortasun guztiaren % 0'7a besterik ez baita eta % 97a berriz eskualde artekoa. Beraz, AHTren bidez, EAEko bidaiarien 0'7ari emango litzaioke garraio zerbitzua, kasurik onenean ere.

Azken garaian ere esaten ari dira, EA lagun, AHTak salgaiak garraiatuko dituela, baina kasu horretan abiadura jaitsi beharko litzateke edo soilik balio handiko salgaiak garraiatuko lirakeke. Gaur egun Espainia osoan inongo AVEtan ez dira salgaiak garraiatzen.

Ekonomikoki eta sozialki hain errentagarritasun txikia izateaz gain, AHTak oso urbanizatuta den lurralde menditsu honetan sortuko dituen inpaktuak oso handiak izango dira: nekazal lur gehiagotzea, akuiferoak arriskuan jartzea, ekosistemak gehiago zatitzea, energia kopuru handiz kontsumitzea, zarata maila handitzea, eta gainera garraio arazoak ez konpontzea. Berriz Suitzan, baita menditsua den lurraldean, AHTa ez da eraikiko, Europa mailan onenatarikoak diren trenbideak mantenduko dituztelarik.

AHTrik ez dugu behar, baizik eta salgaiak eta bidaiariak eramango dituen ohiko sarea berritu eta modernizatzea, eta beharrezkoa den kasuetan bailara batzuk lotzeko trenbide sare berriak sortu edo aspaldikoak berreraiki.

Edurne Huesa

LIBURUA

"Naturagune paregabeak EAEn. Natura 2000 Sarea". Eusko Jaurlaritzak. Lurralde, Antolamendu eta Ingurumen Saila. Gida honetan Europako Natura 2000 Sarerako Euskal Autonomia Erkidegoak proposaturiko 57 inguruneak biltzen dira. Irudi eta marrazki eder askoz lagundurik, argitalpen bikain honek balio dokumental handia du eta benetako atsegina eragiten du irakurtzean.

JAKIN BEHARREKOA

Animalia gutxiago ikerketan: animaliak erabiltzen dituzten ikerketen kopuruak % 30 egin du behera azken 30 urteetan, egin berri duten azterketa baten arabera. Bestalde, gero eta metodo alternatibo gehiago erabiltzen direla esan dute, adibidez ezperimentuak zelulakulturretan. Gainera, laborategiko animalien bizibaldintzak hobetu egin omen dira oro har. Hala ere, zenbait ikertzailerentzatez, oraindik lan handia egin behar da arlo horretan.

Brasilgo sabana ere desagertzeko arriskuan:

Brasilgo oihana suntsitzeak kezka handia sortzen du. Talde ekologistek salatu dutenez ordea, oihana bera baino azkarrago ari da desagertzen sabana. Nonbait, nekazariak soja, kotoia eta garia landatzeko erretzen dute sabana, baina, horrekin batera, sabanaren biodibertsitatea arriskuan jartzen ari dira. Neurririk hartu ezean, sabana 2030erako desagertuko dela uste dute ekologistek.

8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea (Goierriin)

Goierri eskualdeko landa eremuko herri txikiak eta zenbait auzok ez dituzte herri bertan zerbitzu asko eta asko eta dauden zerbitzu batzuk ere ez dira nahikoak. Herri handiagoetara joan behar izaten dute hauen bila.

Dakigun bezala, Agenda 21 aren helburua bizi kalitatea hobetzea da, beti ere iraunkortasunaren irizpideak kontutan hartuz. Herri handienetan kutsadura, zarata, hondakinak... izaten dira bizi kalitatea hobetzeko lantzen diren gaiak, ingurugiroarekin erlazionaturikoak alegia. Herri txikienetan biztanlegoa mantentzea dute erronkarik handiena. Herri lasaia dira, ingurumen kalitatea ziurtatua dute baina, bizi kalitatea hobetzeko ezinbestekoa dute zerbitzuak biztanleei eskura jartzea eta zerbitzu hauen inguruan gizarte harremanak ziurtatzea. Arazoa ordea dituzten aurrekontu murritzak dira.

● **Azpiegiturak:** Oraindik ere badira gure eskualdean azpiegiturak iritsi edo zabaldu ez diren herri eta baserriak: ur hornidura sarea, ur zikinen saneamendua, gasifikazioa.

● **Eskolak:** Altzaga, Gaintza, Arama eta Mutiloan ez dago eskolarik. Zerain eta Olaberrian dauden eskoletan iraupenerako arazoei dabilta. Eskola txikiak herri giroa, herrietako koa-

drilak eta herritartasuna sustatzeko oinarria dira. Herri hauetako haurrak beste herri handiagoetako eskoletara joateak herriarekiko lotura etetea dakar.

● **Osasun zerbitzuak:** "Herri bat osasun zerbitzu bat", Goierriin pixkanaka betetzen ari den printzipio bat da hau. Hala ere badira oraindik herri eta auzo batzuk zerbitzu hau jasotzen ez dutenak. Medikuzko zerbitzua edo zerbitzu soziala antolatzerakoan kontutan hartu behar da base-rietan pertsona nagusi ugari bizi dela eta hauetarik asko gainera bakarrik edo ezindurik daudela. Legorreta, Itsasondo, Altzaga, Arama, Gaintza eta Zaldibiak adibidez gizarte laguntzaile bakarra dute dezentzako.

● **Mugikortasuna:** Landa eremuetako biztanleek, ordutegien malgutasuna, maiztasun egokia (haurren eskolaz kanpoko jarduerak kontutan hartuko dituenak), ibilbide koherenteak (kilometrotan motzak diren ibilbideak) eskainiko dituen garraio zerbitzua behar dute. Herri txikietan bi autobus daude egunean Ordizia edo Beasaina doazenak eta hauetatik herri bakoitzera doazenak ere bi bakarrik dira. Zenbait auzotan ez dute autobus zerbitzurik, Arriaran eta Garingo auzoak kasu. Behar bada, autobusaz gaudiko beste zerbitzu bat bilatu beharko da.

● **Taberna edo Ostatua:** Eguneroko jarduna bukatzerakoan deskantsua hartzeko, lagun artean egoteko, herriko herri izateko... herri guztietan egon ohi den taberna edo ostatua ezinbestekoa da. Herri hauetako taberna istean gabezi handia somatzen da, Araman duela urte batzuk pasa zen hau. Beste zerbitzu batzuk bertan eskaintzen dituztenak ere badira, Mutiloako ostatuan adibidez, oinarrizko zenbait produktu ere salgai daude. Badira ordea, oinarrizko produktuak lortzeko beste herri batera desplazatu beharra duten biztanleak ere.

● **Kultur, kirol eta aisialdirako ekipamenduak:** Kultur, kirol eta oro har aisialdirako ekintzak egokiak dira biztanlegoa ekitaldi, lehiaketa, jolas edo denborapasa baten inguruan elkartzeko. Ez hori bakarrik, ekitaldiok herritarrek antolatzen dituzten heinean, elkarte ezberdinen sorrera eta sendotzea errealitate bilakatzen da.

● **Teknologia berriak:** Geroz eta jarduera gehiago teknologia berrien esku dago lehiakorrak izateko. Aukera honek, herri txikiari desabantaila konpetitibo asko gaintitzen lagunduko lioke. Hala ere landa inguruak azpiegitura teknologiko hornitu daitezen bide luzea dago oraindik egiteko.



Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gaintitzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziarren hazkundea.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.

● **Kutxazainak:** Gabiria, Altzaga, Arama, Gaintza, Mutilo eta Zerainen ez dago kutxazainik. Herritarrek dirua ateratzeko herri handiagotara joan behar izaten dute.

Textu hau Goimenek eginiko Landa Garapen Programan oinarritua izan da.



ARANDIA
Garaia

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

943 88 09 47



TOLDOS OLANAK
AGUSTIN

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

SUKALDEAN

Ontto risotoa



Iker Markinez
Kuko jatetxea
Ormaiztegi

Osagaiak:

4 lagunentzat

- 4 katilu arroz
- Haragi salda
- Gatza
- 300 gr. ontto garbi
- 4 baratzuri buru
- Goilarakada bat gurin
- 200 gr. parfegiano gazta
- Oliba olio

Prestaketa:

Lapiko batean olio jarri eta berotu ondoren onttoak bota xerra finetan ebakita. Lau bat minutuz suezitu su erdian eta ondoren baratzuriak txikituta nahastu. Segidan arroza gehitu, dena ondo nahastu eta 12 katilu haragi salda gehitu, beroa ahal bada.

20 minutuz su txikian egosi. Sutatik kendu bezain laster guriña eta gazta bota eta bost minutu pasatzen utzi. Azken aldi batez dena berriro ondo nahastu eta jateko prest dago.

Risotoa jaki italiarra dugu eta bere sena arroz saldatsuan datza, gurin eta gatzaz loditurikoa.

Osasuntsu argaltzeko

✓ Janariaz gozatzen jakin behar da. Dieta oso eta atsegina egin behar da.

✓ Otordu guztiak egin, eta aldeaz aurretik ezarritako elikagai kopurua jan. Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Jatorduren bat egiten ez bada, gosea eta urduritasuna areagotu egiten dira.

✓ Jatordu bakoitzari gutxienez 30 minutu eskaini. Presak eta elikagaiak edozein modutan edo ordenik gabe jateko ohitura saihestu. Ahal bada, beste norbaitekin jan. Dietak ez du baktzerik eragin behar.

✓ Kontuan izan gosaria eguneko otordurik garrantzitsuen delako. Ondorioz, osoa hartu behar da (fruta, esnekiak eta laboreak). Egunean zehar elikagai ko-

puru egokia eta kalitatezkoa hartu bada, afaltzeko elikagai arinagoak jan.

✓ Jatorduen artean, saiatu ezer ez jaten. Gosea izanez gero, elikagai hauek har daitezke: azukrerik gabeko infusioak, koiperik gabeko saldak, tomate zukuak, gainik gabeko jogurta, tostada bat koipe gutxiko gaztarekin, fruta, barazkiak...

✓ Argaltzen ez duen elikagairik ez dago. Energia kopuru gehiago edo gutxiago duten elikagaiak daude soilik. Koipe kopuru handiko elikagaiak eta janaria prestatzeko hainbat modu, ur asko duten elikagaiak baino energetikoagoak dira.

✓ Kaloria gutxi eta zuntz asko duten elikagaiak jan. Horri esker, ez da gosarik

izango. Gainera, kasu askotan, dietak idorrieria sortzen dute. Baina zuntzari esker ez da horrela izango. Zuntza eraginkorra izan dadin, ur asko edan behar da.

✓ Jatorduen kantitatea, kalitatea eta ordutegia kontrolatzeaz gain, oso garrantzitsua da kirola egitea. Energia erretzen laguntzen du, eta giharretako malgutasuna hobetzen du.

✓ Pisua azkar galtzeko nahia baztertu egin behar da. Dieta batzuekin kiloak segituan galtzen badira ere, gero berreskuratu egiten dira. Kasu askotan, gainera, lehen baino gehiago gizenetzen gara. Bizitza guztian izandako ohitura desegokiak ez dira egun batetik bestera aldatzen.

AHOLKUA



Idoia Noain
Dietista
Goiklinik osasun zentroa

IÑAKI ARIN Aseguruak




☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

BEASAIN



Gustura emango zenukeen albisteak.

Esklabotza mota guztiak debekatu dituztela. Ez, ez zen XVIII. mendean bukatu, begiratu ingurura.

Nori egingo zenioke elkarrizketa?

Behin kalabazak eman zizkidan eskuak ezarri sendatu edo egiten zuen tipo bati (apaiz bat), gaixoaren barrura sartzen omen zen izpirituz.

Kamara aurrean ala atzean nahiago?

Deseatzen nago atzean egoteko, baina sormena alde batera utzi gabe.

Telebistan ezer gutxi omen dago ikusteko... zabor askotxo omen dago...

Zaborra ez dakit, baina hutsune dezente dagoela horixe. Barrutik hobeto ikusten/sufritzen da hori.

Kazetari bezala, helburu bat:

Mundua piska bat ulertzen lagunduko duten istorioak kontatzea.

Berriz jaioko bazina, zer izango zinateke?

Arotza.

Inoiz ahaztuko ez duzun eguna:

Ezkundu nintzanekoa.

Gustura ezagutuko zenukeen norbait?

Bernardo Atxaga.

Pertsonengan gehien estimatzen duzun dohaina?

“Arotza izan nahi nuke”

Naturala, euskaraz esandako “natuala”, izatea. Aktore asko dago.

Zerk sortzen dizu barrea?

Semeen jolasak ezkutuan espiatzeak.

Eta negarra?

Duela gutxi, Canelle hartaren heriotzak, ia.

Herriko alkate izango bazina....

Pattarra nahikua, ai, ai, ai, denentzat.

Zer gorrotatzen duzu?

Zalantzarik egiten ez duen jendea, gorrotatzeraino ez, baina... kontu!

Liburu bat:

Julio Cortazarren “Todos los fuegos el fuego”. Ipuinak.

Pelikula bat:

“Un lugar en el mundo”, Adolfo Aristarainena.

Musika talde bat:

Azken aldian jazz ari naiz deskubritzen. Musika hutsa, zuk jartzen dizkiozu “hitzak”. Stan Getz adibidez.

Gustuko jaki bat:

Piper beteak.

Edari bat:

Garagardoa, egarriarekin.

Ormaiztegi:

Zatoz eta konta ezazu.

San Andres:

Festa batzutan kanpotar batzuei entzunda “Hau Ipar Po-loa da!”. Orain ez du izotzik egiten.

Euskal Herria:

Esistitzen da eta eguneroko lanarekin eutsi behar diogu.

Goierriko txoko bat:

Ursuaran.

Amets bat:

Lasai bizi.

berriz

AMAYA ARZUAGA	FRENCH CONNECTION
MIRIAN OCARIZ	DIESEL
ISABEL MARANT	FOR ALL MANKIND
PAUL & JOE	ANTIK BATIK
HOSS	EARL JEANS
MISS SIXTY	SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak”



**GOKINDEGIA
GARCIONA**

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

Javier Cuadrado

'Karratu':

2'20
egina dut
maratoian
eta oraindik
ere hobetu
dezakedalakoan
nago



Bide bazterrak korrikalariz beteta da-biltzan garai honetan, iaz Behobia-tik Donostiarakoan posturik onena egin zuen goierritarrarengana jo dugu: Javier Cuadrado, Zaldibian bizi den ordiziar-rak, 7. egin zuen ordu bete eta bost mi-nutuko denborarekin. "Aurten iazkoa ho-betzeko asmoarekin ari nintzen entrena-

Gero eta jende gehiago ikusten da korrikan. Modan al dago korrika?

Nik uste dut baietz. Gainera kirol merkea da eta entrenatzeko ere ez da den-bora gehiegirik behar.

Urtean zenbat lasterketa korritu dituzu?

Aurten pasatu egin naiz, asko. 40 bat agian bai.

Krosetan aritzen zara, lasterketa herrikoietan ere bai... Zer moduz ma-ratoia?

Maratoian, Sevillakoan, bi ordu eta 20 minutuko den-bora egin nuen. Uste dut marka hori jaitsi dezakeda-

la. Beti, 2 ordu eta 18 mi-nutuan egitea eduki dut buruan. Egitekotan egon naiz, entrenamenduetan ondo aritu izan bainaiz. Baina lasterketako eguna ezberdina izaten da. Arra-zoi ezberdinak egon dai-tezke. Oraindik ere egin dezakedala uste dut baina entrenamendu gogorra be-har da. Lasterketa bera bai-no gogorragoa da hiru hi-labeteko prestakuntza. Egunero 25 kilometro egin behar dira. Gure adinare-kin, muskularki, ez da hain azkar erreku-peratzen. Familia ere hor dago...

tzen. Baina, 3 aste aurretik Donibane Lohitzune eta Hendaia arteko maratoi er-dia gaizki egin nuen, erreku-peratzeko denborarik ez nuela izango sartu zitzai-dan buruan eta ez korritzea erabaki nuen". Pare bat aldiz bakarrik parte hartu badu ere, prestigioa ematen duen laster-keta dela dio Karratuk.

40 urteko adin kritikora iritsi zara beraz.

Hori esaten dut baina ba-rruan oraindik ere beste maratoi bat egin beharrean nagoela pentsatzen ari naiz. Nik uste ezin naizela berriz saiatu gabe gelditu. Hiru haur ere baditut, 6, 5 eta 2 urtekoak. Gau batzu-tan, gerra ematen dute, bat ez bada bestea, eta ez da ondo atsedean hartzen. Ma-ratoia egiteko ondo lo egin behar da, atsedean ondo hartu. Nahikoa zentratuta egon behar da.

Familia, lana, entrena-menduak... nola uztar-

tzen dituzu? Erraza al da?

Oso zaila da. CAFen lan egiten dut eta orain arte goizeko 6etatik ordu bieta-ra lan egin dut. Bazkaldu, haurrak eskolatik jaso, haurrekin egon... Arratsal-dean, 6ak aldera, entrena-tzen nuen, baina oso go-gorra zen, nire buruarekin ezin izaten nuen askotan, erreku-perazioa gero eta geldoagoa da eta. Ez nuen gozatzen. Nagusiarekin hitz egin eta lanaldi etena egiten dut. Eguerdian, 12,30etatik 2,30etara, en-trenatzeko hartzen dut.

► Eta bazkaldu?

Ahaztu egiten zait. Niretzat hori ez da garrantzitsua. 7etan, bazkaria-afari-merienda egiten dut.

Baina elikadura garrantzitsua izango da bada korrikalari batentzat.

Bai. Ondo gosaltzen dut, lanean fruitu lehorrak, fruta eta gailetak jaten ditut.

Inoiz izan al duzu buuruan korrika serioago hartu eta korrikara dedikatzea?

Bai. Sevillako maratoian, Eusko Jaurlaritzaren beka bat eskuratzetik oso gertu gelditu nintzen. Lanean eszendentzia hartzeko moduan izango nintzen. Baina ez nintzen ausartu. Adina ezberdina zen eta ez nion hainbesteko garrantzirik ematen.

Lesioekin zer moduz moldatu zara?

Egia esateko ondo. Maratoian 2h20 eginda, Legorreta aldera nindoala auto batek harrapatu ninduen. Txikituta gelditu nintzen, kasualitatez nago hemen. Nahiko ondo atera nintzen. Hori da izan dudana leñoriak larriena. Aurretik belaunetik ez nintzen oso ondo ibiltzen baina plantilekin konpondu nuen arazoa.

Nola hasi zinen korrika?

Eskolan nenbilenean, eskola kirolaren barruan hasi nintzen. Villafranca klubak sortu zen eta han federatu nintzen. 2005. urtean



"Karrera bat irabazten dudanean konpartitu egiten dut. Hiru baur dauzkat eta boriekin beti norbait egin behar du. Emaztea eta bere gurasoak eskertu beharrean nago, beraiei esker, egunero entrenatzeko aukera dudalako".

25 urte egingo ditut federatuta korrikan.

Hasieran, martxan ibiltzen nintzen. Nahikoa ondo moldatzen nintzen. Euskadiko lau txapelketa irabazi nituen, Espainiako txapelketarako gutxienekoak lortu nituen, Espainiako txapelketa batean 6. gelditu nintzen... Baina Espainiako txapelketa batean kableak gurutzatu eta utzi egin nuen martxa. Epailiek kanporatu egin ninduten.

Hainbeste entrenamenduren ondoren epailiek kanporatzea gogorra da eta hantxe bukatu nuen. Korrika hasi nintzen. Hurrengo urtean maratoian debutatu nuen, Rotterdamen. Diego Garciarekin joan nintzen. 2 ordu eta 27 minutu egin nuen. Donostian jokatu zen Munduko Kopan, 1993an, 5 minututan jaitsi nuen.

25 urte daramazkizu korrikan. Asko aldatu al da

korrika egiteko modua?

Izugarri. Gaur egun errendimendu altuko zentroak daude. Entrenamendu pertsonalizatuak egiten dira. Zentzu horretan asko hobetu da. Gu hasi ginenean, fondista taldea, denok batera joaten ginen entrenatzera baina bakoitzak erritmo ezberdinak ditugu.

Nirea baino maila altuagoko korrikalarien artean medikuntza sartu da. Nik korrikalari herrikoitzat



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN



Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

**2004-2005
IKASTURTEA**

BERRIA!

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduluak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Talde txikiak

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
 - Ingelera
 - Word, acces, excel
 - mekanografia
- ✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

daukat nire burua. Herrikoien artean ondoen ibiltzen naizenarikoa naiz. Ondo ibiltzen den herrikoien eta profesionalen artean okerren ibiltzen direnen artean nago. Salto hori emateko, entrenadoreaz gain, medikua behar da.

Entrenatzailerik ba al duzu?

Lazkaoko Kemen KOZeko Jon Etxeberria.

Zapatilak asko aldatu al dira?

Asko. Gaur egun badaude zapatila batzuk, atzealdean, sentso batzuk dituenak, eta zapaltzen duzun arabera zapatila orekatzen duena. Ez dakit zein emaitza emango duen. Mikroelektronika zapatiletan ere sartu da. Gu hasi ginenean, zapatila guztiak berdinak ziren, azokan erosten genituen. Aire kamara sartu zen eta atletaren bizitza luzatzen ari da zapatilei esker. Aire kamara duen zapatila zapaltzeak babestu egiten du, amortigoatu. Horregatik lesio gutxiago ere izaten da.

Non entrenatzen duzu?

Erritmoa igo nahi badut, Legorreta-Alegia aldera joaten naiz. Erritmo lasaiagoko entrenamendua egin nahi badut, Beasaingo kiroldegiraino joan, futbol zelaian buelta batzuk eman eta berriz Ordiziara itzultzen naiz. Serieak egin nahi baditut, Altamira estadiogan.

Urtean zenbat zapatila puskatzen dituzu?

Bi pare.

Urtean zenbat kilometro egiten dituzu?

Ez dakit, ez dut konturik eraman aurren. Baina bota, asteen 100 bat kilometro, 52 astetan... 5.200 bat kilometro.

Korrika egitea zer da zuretzat: zaletasuna, obsesioa, osasuna, bizioa...

Nik uste dena. Ez dut uste engantxatuta egongo naizenik. Agian bai, utziz gero zerbait faltan botako nukeen. Nik uste dut denok engantxatzen gaituela korrika egiteak. Korrika egin eta lasterketa bat bukatzeak asebate egiten du. Jendeak askotan galdetzen dit ea zenbat diru ematen didaten karrerak irabazteagatik. Baina proba herrikoietan ez dago dirurik. Karrera bera bukatzeak eta norberaren denbora hobetzeak berak ematen du poza.

Lehiarik ba al dago zuen artean?

Bai, azkenean, atleta talde baten arteko norgehiagoka handia da. Badakizu deskuido txiki batekin irabazi egingo dizutela. Maila mantentzeko entrenatu egin behar da. Hemen ez dago sekreturik. Entrenamenduak jaisiz gero, jendeak aurre hartzen du. Lehiatu nahi baduzu gogor entrenatu egin behar da.

Eguraldiak ba al du eraginik lasterketa batean?

Bai, handia. Ni beroarekin gaizki moldatzen naiz. Euriarekin eta hotzarekin berriz, ondo.

Gogokoen duzun distantzia?

Maratoia.

esprintean



Gogoko atleta:

Diego Garcia.

Korrikaz gain, beste gogoko kirol bat:

Orokorrean, kirol guztia. Futbola, txirrindularitza...

Amets bat:

Maratoian 2h18 egitea.

Helburu bat:

Datorren urtean 40 urte beteko ditut eta beteranoen mailara igoko naiz. Seniorretan egin ahal ezin dudana beteranoetan egitea gustatuko litzaidake: munduko txapelketaren batean parte hartzea.

40 lasterketa korritzeko, urte guztian sasoiaren egon behar.

Urte osoan sasoi bertsuan egon naiz. Ez dut bereziki probarik prestatu. Orain

krozean murgilduta nabil. Azaroaren 7an Irunen irabazi egin nuen. ■

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain

Tfnoa 943 88 86 84

Lazkaoko Iztuetan esne pasteurizatua



Behi-esne osoa eta gaingabetua poltsaratzen dute

Baserriari bizirik eutsi nahian lanean buru-belarri ari dira Lazkaoko Iztueta Elkartekoak. Bizimodu berrira moldatu nahian, erosotasuna eta kalitatea eskainiz,

esne pasteurizatua merkaturatzen hasi dira. Baserriaren jarraitzearen eta bizi kalitatea hobetzearen, esne osoa eta gaingabetua, guztia poltsatan saltzen dute. Iztuetarrek eman dizkigute xehetasunak.

Zergatik erabaki duzue esne pasteurizatua merkaturatzen hastea?

Esne gordinaren merkatua gutxitzen ari zela ikusten genuen. Jendeak ohiturak aldatu ditu, denbora gutxi dauka... esne gordina egosi egin behar izaten da, nahiz eta kalitate aldetik ona dela jakin. Alde horretatik geldituta geunden. Baina gure nahia esnearen salmenta zuzenarekin jarraitzea da. Gure aitona salmenta zuzena egiten zuen, gure amak ere bai eta guk ere jarraitzen dugu. Gure asmoa da baserri honek jarraitzea eta bizi kalitatea hobetzea.

Alde horretatik ikusten duguna da esnea zentralari emanda oso-oso tarte txikia geratzen dela, gauzak gero eta estuago dardela. Ahalegin honekin nahi duguna da errentagarritasun hori ateratzea kalean salmenta zuzena eginenez. Salmenta zuzenarekin bitartekorik ez dago eta katearen maila guztiak guk osatzen ditugu. Produzitu, transformatu eta saldu. Jendea bagaude eta posible dugu lan guzti hori egitea. Helburua da, ganadukopurua pixka bat jaitsi eta ganaduarekin egin beharreko lan kopurua pixka bat jaitsi eta salmenta zuzena gehitzea. Salmenta zuzena zabaldu nahi dugu. Horregatik egin dugu horrelako inbertsioa.

Zer da esne pasteurizatua? Zein da bere prozesua?

Pasteurizatuta, esneak ez ditu bere kalitatea eta propietateak galtzen. Orain arte eramaten dugun kalitate berdinarekin jarraituko dugu.



Eusebio, Jose Inazio, Ros eta Marije dira Iztueta Elkarteak.

Iztueta Elkartea

Duela 20 urte sortu zuten Lazkoamendiko Iztueta Azpikoa eta Iztueta Garakoa baserriek Iztueta Elkartea. "Familiako elkartea da, hiru anai-arrebak eta koinatuak osatzen baitugu. Antolaketa bere aukera batzuk ematen ditu. Inbertsio gutxiago ere behar izaten dira, bi baserrien artean lan eginda".

Azkena egin duten inbertsioarekin, hau da, esne pasteurizatuarekin, bizi kalitate hobea lortzea dute helburu, atzetik datozenek ere jarraipena eman diezaioten baserriari. Hurrengo belaunaldirik izango ote den galdetuta, zera erantzun digu Marije Intxaustik: "oraindik garaiz da esateko, gu ere sasoi gaude eta, ustez behintzat. Bizi kalitatea hobetu beharra daukagu bestela jarraipenik ez dugu izango. Guretzat ere mesede izango da bizi kalitatea hobetzea".

Esnea pasteurizatzeke, esnea 72-76 gradutara igo-tzen da. Temperatura horretan 15 segundutan edu-

ki eta gero tenperatura jaitsi egiten da. Egostearen lana egiten du.

Nola kontserbatu behar

da?

Hotzean kontserbatu behar da. Bizirik dagoen elikagai bat da. Hiru hilabete ko kaduzitate duen esnea ikusten dugu baina hori esne hila da. Esneak bere bakteriak ditu eta beti lanean ari dira.

Zazpi eguneko kaduzitate du. Ez zaio inolako kontserbanterik botatzen.

Nolakoa izan da jendearen erantzuna?

Jendea oso gustura dago, erosoagoa baita, egosi beharrik ez duelako. Behar dena berotu besterik ez da egin behar.

Norbaitek esaten du, esnegainarekin egiten zituena postreak ezingo dituela egin. Baina berriz egosiz gero, esnegaina aterako zaio.

ARRIETA

JATETXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era
guztietako

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

**“
Pasteurizatuta, esneak ez ditu
bere kalitatea eta propietateak
galtzen. Erosotasunean irabazten
da”**

► **Zaporea aldatzen al zaio?**

Batzuk esaten dute zapore gutxiareago duela baina gehienek diote zaporea berdina dela. Nik neronek ez diot aldaketarik nabaritu. %98a oso gustura dago aldaketarekin.

Esne gaingabetua ere merkaturatzen hasi zarete.

Esne gaingabetua edo desnatatua modan dagoenez, horri ere heldu diogu. Esnari gaina kentzen zaio. Ereboluzio handitan 40 gradutan, esnea zentrifugatu egiten da. Ondoren, esnea pasteurizatzeko prozesu bera egin behar zaio.

Esne pasteurizatuarekin merkaturatzea duzue helburu.

Goierri berton biztanle kopuru handia bizi gara gure merkaturatik irekitzeko. Gure asmoa da merkaturatik irekitzea, jatetxeetan, kafe-tegietan, okindegietan, gozotegietan... Gure ustez jatetxeetan eguneko menu asko ematen da eta esne postre asko jateko ohitura daukagu. Esne pasteurizatuarekin beste zapore batetik postreak egiten dira. Krokidak direla, kafetere-rako...

Gizartearen egiten duzuen lanaz ohartzen al da?

Baserritarrok kalitatezko produktuak ekoizteaz gain, ingurunea zaintzen dugu. Gure baserrian betidanik ingurunean eta oreka sozialean oinarritutako langintza egin dugu, bitartekorik gabe gure kalitatezko esnea kontsumitzaileei zuzenean eskainiz. Gure helburua salmenta

zuzena indartzea, merkaturatik preziorik onenean eskaintzea eta gure ondorengoek jarraitzea da. Guk egin dezakegun ahalegina egin dugu, orain kontsumitzailearena da erabakia. Gertuan ditugun produktuak kontsumitzen baditugu gure baserriak eta ingurunea mantentzen ari gara.

Eskoletan ere lan bat egiteko asmoa badarabilgu buruan. Txiki-txikitik kontzientzia hori sartu behar da.

Zenbatean salduko duzue litroa?

Zuzeneko salmentan, 0,70 eurotan kobratuko da litroa.

Aitona, ama, orain zuek... urte asko daromatatzue esnearen salmenta zuzenarekin. Kontsumitzailearentzat zein abantaila du horrek?

Salmenta zuzenak baditu abantaila batzuk: kontsumitzaileak badaki momentu nongo esnea edaten duen. Gure etxean, bertan jaiotako ganadua daukagu. Bertan jaiotako ganadua. Hori bera ere garrantzia bat da momentu honetan.

Urteetan ari gara esnea saltzen. Eta horrek berak ere konfiantza ematen du.

Gertutasuna ere garrantzitsua da: badakizu nongo esnea eta nolako den kontsumitzen duzuna eta, gainera, garraioan energia gutxiago gastatzen da. Gertutasuna, ziurtasuna eta konfiantza eskaintzeko moduan gara. Zer jaten dugun gure osasuna hala-koa izango da. ■



Mariaje eta Ros Intxausti abizpak, esnea pasteurizatu ondoren poltsetan sartzen. Inbertsio handiak egin behar izan dituzte baserrian: pasteurizadora, esnea poltsaratzeko makina berria eta gaingabetzeko makina erosi behar izan dituzte.



Baserriaren etorkizuna kolokan

Lazkaomendiko Iztueta Elkartekoek baserriaren etorkizunaz kezka hitz egin digute. Administrazioaren jarrera salatzen dute.

Esne pasteurizatua merkaturatzen hasteko inbertsio handiak egin behar izan dituzte. Makinak erosteaz gain, gela eta ingurua osasun sailak agintzen duen baldintzetan jarri behar izan dituzte. Hori bai, eskatu asko, baina eman?

Iztuetako Marije Intxaustik laguntzen gainean azpimarratu duenez, "Foru Aldundiak laguntza onartu zuen aurreko legegintzaldian. Behi-esnearen transformazioa Jaurlaritzaren konpetentzia da baina behi-esnearentzat ez dago inolako laguntzarik. Laguntza guztiak Kalkura, Iparlatera joaten dira. Politika ezberdinak erabili dira behi-esnearekin eta ardiarenarekin. Ardi-esne produktore bakoitzak bere ekoizpena transformatu eta gazta egitea bultzatu da. Behi-esnearekin, berriz, produkzio guztia zentral batera eramatea bultzatu da".

Behi-esnearen sektorea egoera larrian dagoela



nabarmendu du Intxaustik: "oso-oso marjen txikiarekin lan egiten dugu. Zailtasunak gero eta han-

diagoak dira. Azkeneko bi urteak gainera oso txarrak izan dira izan diren lehortegengatik. Errentagarritan

sun gutxi eta bizi kalitate eskasa dugu behi-esnearekin lan egiten dugunok. Azkeneko sei hilabetetartan, esaterako, Goierri, 3 esplotazio itxi dira gutxienez, denak ere 30 behitik gorakoak".

Etorkizunaz beraz, nahikoa ezkorra da lazkaotarra: "Europatik datozen betebeharrak guzti horiekin, gauzak oso-oso estu jartzera doaz. Esne sektoreak bizirik jarraitu ahal izateko, bertako administrazioak horren aldeko apostua egin beharko du, bestela, hemen behi-esnearen sektorean lau geldituko dira".

“Ardi-esne produktore bakoitzak bere ekoizpena transformatu eta gazta egitea bultzatu da. Behi-esnearekin, berriz, produkzio guztia zentral batera eramatea bultzatu da”



SUTAN

TXIMINIAK

EGUR BARBAKOAK

ESTALDURAK

(Harlanduak-simulazioa)

Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETXU

665 737 302



MUJIKALIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

'Dantza Beasainen, Aurtzakak 25 urte' liburua kalean


Beasaingo dantzaren historia

Beasaingo Udalak argitaratzen duen 'Beasaingo Paperak' bildumako 12. zenbakia aurkeztu zen azaroaren 8an: 'Dantza Beasainen. Aurtzakak 25 urte'. Beasaingo dantzaren eta Aurtzaka taldearen historia dira liburuaren oinarri. 3 atal nagusi ditu: tradiziozko dantzak Beasainen (ezpata-dantza eta soka-dantza), Beasaingo dantza taldeen historia, Aurtzakaren 25 urteetako historia eta Beasaingo txistulariak. Liburuaren amaieran, Fotoetxe argazki dendakoek ateratako argazki bilduma dago. Mikel Sarriegi koordinatzaile dela, Jon Ordoñez, Idurre Eskisabel eta Mikel Apaoalaza Beasaingo kazetariak idatzi dute liburua. Lehenengo aldiz, euskara hutsean kaleratu dute liburua. Elebiduna erosteko aukera ere badago. Liburu hau, Aurtzaka dantza taldearen 25. urterreneko ospakizunen amaierako ekitaldia izan da.

Gaur egun Beasainen, bi dantza talde daude: Aurtzaka eta Ostadar. Aurretik, ordea, beste makina bat talde eta dantzari ere izan dira. Jarraian, historia laburra egingo dugu.

Lehen dantza-taldearen aipamena 1931 eta 1932 urteetan Batzokian izan zen dantza-taldearena da. Jose Soroa ondarrutarra izan zen irakasle. Bizkaiko dantzak ekarri zituen Beasaina.

Batzokiko lehen urte horien ondoren, 1933. eta 1934. urteetan, Bizkaiko dantzak irakasten hasi zen



La Salleko dantza-taldea, 1930eko hamarkadan.



Soroa Loinazko San Martin ikastetxean. Beasaingo La Salleko fraideak euskaltzaleak ziren eta ikasturte hartan ikasleekin dantza-taldeak osatu zituzten. Sei talde sortu ziren. San Isidro eta La Salleko Joan Bataiatzailearen egunean egin zuten dantza.

Gerra piztu zenean, eten egin zen La Salleko dantza-taldeen jarduna. 1945. urte inguruan beste dantza-talde bat sortu zen, erlijioaren babesean: Accion Catolica. Soroarekin dantzan ikasitako Joxe Sarriegi eta Guillermo Gama-



Acción Católicako dantza-taldea, 1945ean.

yo izan ziren irakasleak. Gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak sortu ziren. La Sallen dantzari izandako hurrekin sortu zen taldea. Entseguak Accion Catolicaren egoitzan eta Batzokian egin ziren.

Accion Catolicako dantza taldea sortuta, ondoren Loinatz Abesbatza, Beasaingo Musika Banda eta gizonezkoen dantza-taldearen elkarlana etorri zen, Pedro Jose Iguain musikamaisuaren eskutik. Iguain urte haietan Loinatz Abesbatzaren eta Musika Bandaren zuzendaria zen. Sorro'lagun handia zuen, eta abesbatzarekin, bandarekin eta dantzarekin hiruko kontzertu bat prestatu zuen. Hiruko kontzertua 1945eko maiatzaren 12an egin zen lehen aldiz, Loinatzetako larunbatean.

Murumendi dantza taldea

1959an sortu zen Murumendi dantza-taldea, On Tomas Arregi apaizari esker. Beasaina etorri zenean, euskal giroa indartzeko kezka sortu zitzaion eta Murumendi pelotazale-el-

kartearekin harremana zuenez, bere babesean sortu zen dantza-taldea. Taldearen dantza-irakaslea Tolosan aurkitu zuen On Tomas Arregik: Blas Lasa. Sei urtez 40 hurrez osatutako taldeari eutsi zion. Accion Catolicak San Inazio kalean zuen egoitzen egiten ziren entseguak. Hamar urteko bizia izan zuen dantza-taldeak.

Adiskideak

1969 urte inguruan sortu zuten Adiskideak dantza-taldea. Loinazko ezpata-dantzari izandakoak eta La Salleko Gazte Elkartekoek osatu zuten taldea. Hamar hamabi mutilek eta beste hainbeste neskek osatu zuen Adiskideak taldea. Karmelitetan, gero Alkartasuna Lizeoa Zaharra izango zen eraikinean, egiten zituzten entseguak.

Adiskideak taldeak ez zuen luzaro iraun: bi urte inguru. Ez, ordea, gazte haiek dantzarako ilusioa galdu zutelako. Alderantziz, euren gabeziak gainditu nahia dantza talde sendoago baten proiektu-



Loinatz Abesbatzako dantzari-taldea, Beasainen 1948-08-08an.



Murumendi dantza taldea.



Adiskideak, Euskal Festak, Beasainen 1971.



OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabe

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48

tuan murgildu zirelako. Azken batean, Goierri dantza-taldearen egitasmoan buru-belarri sartu zirelako.

Goierri dantza-taldea

Beasainen Adiskideak, Lazkaon Oin-Arin eta Ordizian Amesbide dantza-taldeak zeuden 1970eko hamarkadaren hasieran. Hiru taldeak elkartu eta talde sendoago bat egiteko aukera ikusita, Goierri dantza-taldea sortu zen. Euskal Herriko dantza-talde onenetarikoa izan zen.

Garaiko giro politikoak eragin handia izan zuen Goierri dantza taldean. Barne eztabaidak zirela, ikasketak eta lana zirela, dantzariak gutxitu egin ziren. Beste batzuk, berriz, atxilotu egiten zituzten edo ihes egin behar izan zuten.



Salleko adiskideak Beasaingo Kilometroak 77 ekitaldian.

Salleko Adiskideak

1972an La Sallen, Raimon Gamaiori dantza erakusten hasteko eskatu zioten. Gamaiori eta Adiskideak taldekoei ondo iruditu zitzaizen, etorkizuneko harrobia sortzeko aukera ikusi zutelako. Taldeari

izena, bi ekimenak batuta jarri zioten: Salleko Adiskideak.

1973an neska talde bat gerturatu zitzaizen beraiek ere dantza egin nahi zutela esanez. Maria Jesus Alvarez hasi zen neska-talde harekin lanean.

La Salleko ikastetxean zein Loinatz tabernako jangelan egiten zituzten entseguak.

Aurtzaka

1979an sortu zuten Aurtzaka Goierri eta Salleko Adiskideak dantza-taldeen artean. Ondoko orrian duzue beraiei buruzko informazio zabalagoa.

Ostadar

80ko hamarkadaren hasieran Aurtzaka dantza-taldekoko nagusien taldea zuzentzen ibili zen buru-belarri Jesus Mari Garate dantzaria. Baina, ere berean, bazuen gogoia ume-talde bat hartu eta haiei erakusteko. Hala, 1983an, 7 bat urteko 6 mutilekin eta 9-10 urterekin 14-15 neskarekin hasi zen. 1984an abiatu zen Ostadar talde gisa.



Goierri dantza-taldea Hazparrenen.



Ostadar taldeko haurrak 2000. urtean.



Unanue

70 URTEURRENA
1934 - 2004

ORDIZIA - BEASAIN

**70 urte
goierritarrak
goxatzen!**

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr.

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.

R.P.S. 213/97

BEASAIN

Aurtzaka dantza-taldeak 25 urte

1979ko udaberriaren bueltan sortu zen Aurtzaka dantza-taldea. Goierri eta Salleko Adiskideak dantza-taldeen artean. 210 lagunek osatzen zuten Aurtzaka: musikariak 49 ziren, dantzariak berriz, 156. 1979ko ekainaren 29an egin zuen aurreneko ikuskizun handia, La Salleko patioan, gauez. Emanaldi berezia izan zen: batetik, dantza-talde berriaren aurkezpena zen, baina, era berean, Goierri eta Salleko taldeei agur esatekoa. Bestetik, hainbeste urtetan dantza-maisu ibilitako Joxe Sarriegiri omenaldia egin zioten.

Jantziak eta materiala berritzen ahalegin handia egin zuten. Euskal Herriko zazpi probintzietako dantzetan oinarritutako ikuskizun handia ere berehala sortu zuten.

80eko hamarkadaren hasieran, lau urteko epean, hiru bidaia egin zituzten nazioartera: Erresuma Batua (1981 eta 1983), eta Polonia (1984). Orain berrikiago, Galizian, Mallorcan eta Hungarian ere izan dira.

Aurtzakaren azken lau urteetako ekarpenik handienetakoa agintarien sokadantza berreskuratzea izan da. Ez Beasaingoa bakarrik, Goierriko hainbat herritakoa baizik.

Etorkizuneko asmoan artean dauzkate espata-dantzen eta sokadantzen inguruan egin duten lan horri eustea eta beste bi ohiturekin an-



Goiko argazkian: Aurtzakako dantzariak Beasainen 1983an.

Bebeokan: Aurtzakako baurrak 2004an.

tzeko gauza egitea: batetik, inauterietan, eta bestetik, erromerietan,

dantza librean egiteko Goierriko moduarekin.

Goiklinik
osasun zentroa

Andrea Mari, 11 - 2. A

(Notaria zaharra)

BEASAIN

- Dietetika eta Nutrizioa Tel.: 636 21 82 40
- Psikologia eta Psikomotrizitatea Tel.: 656 76 10 40
- Pedagogia eta Logopedia Tel.: 616 24 15 26
- Podologia Tel.: 635 00 66 30



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak



Iñautsi
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
ORZ. ZOH. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



Ordizian gizonezkoentzako sukaldari ikastaroa

Ordiziako Jubilatuen elkartean, gizonezkoentzako sukaldari ikastaroa ari dira egiten, astelehenetan eta asteartetan, 10etatik 12etara. Dani Arratibel sukaldari ataundarra dute maisu. 8 gizonezko ari dira sukaldaritzan trebatzen. Beraiek bakarrik, otorduak prestatzeko gai izan daitezten lortu nahi da. Batzuk gogoko dutelako, beste batzuk beharrak bultzatuta ari dira ikasten. Sukaldeko sekretuak jakiteaz gain, erosketak ere egiten dituzte.



Aramarrek jubilatuen eguna ospatu dute

Urriaren 31n, Aramako zaharrenek, jubilatuen eguna ospatu zuten. Meza Nagusia izan zuten egunaren hasiera gisa eta jarraian, autobusa hartu, eta beste hainbat herri-tarrekin batera, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrira joan ziren, garai batean sagardoa nola egiten zuten ikustera. Ohi bezala, eguna, mahaiaren bueltan amaitu zuten. Arrikutz elkartean, bazkaria izan zuten guztiek.



Beasainen kultur astea ospatu dute Arangoitin

Toka, igel eta karta jokoak, bingoa, gaztaina jana, Tolo-sako Jose M. Gorrotxategiaren gozotegi museora txangoa, familien eguna, meza nagusia... denetik izan zuten azaroaren 8tik 14ra Beasaingo Arangoiti Egoitzan. Argazkia, azaroaren 12koa da, gaztainak erre eta giro ederrean, gaiztainak jaten.

Millan Irizar: 'Ormaiztegin industria garapenaren urratsak' liburua prestatzen

Millan Irizar ormaiztegiarra, XIX. mendeko azken herenetik gaur arteko Ormaiztegiko eta bere inguruko industriaren historia jaso nahian dabil. Irizartarra da Millan, "karroegileak" bezala ezagutzen zirenen familiakoa. Irizar kooperatibaren lehen urratsak eman zituztenak alegia.

Garai hartako lan motak, teknikak eta eskuartean dituzten baliabideen berri jasoko da liburuan, besteak beste. Aldi berean, garaiko Goierriko egoera sozioekonomikoa ikertu nahi da.



Gaztainak erre artean...

Azaroan gaztaina-jan ugari egiten da txoko ezberdinetan. Gaur egun gutizia den frutua, garai batean, azarotik martxora, afaritan, oinarrizko elikagaia zen. Baratzuri zopa edo porrusalda lehenengo, gaztainak ondoren. Batzutan egosirik, besteetan erreta. Gazteek erreta nahiago izaten omen zuten.

Aita Julian Alustiza 'Aztiri'-k 'Euskal baserriaren inguruan' liburuan biltzen duenez, gaztainak zartagian erretzen ziren eta ez danbolinean. XVIII. mendearen hasieran sartu zen danbolina Euskal Herrian.

Gabiriako frantziskotarrak, gaztainak, sukalde zaharretako famili giroarekin eta euskal giroarekin lotzen ditu. "Izan ere, garai hartan gure sukalde zaharrek bizileku ez-ezik, ikastola ere baziren".

'Gaztainerre' eguna

Gure arbasoentzat esan nahi handiko ospakizuna izaten zen 'Gaztainerre' eguna. Familiako hildakoei bazuen zer ikusirik egun honek. "Familia bateko bizidunek eta hildakoei euren artean zuten lotarri estuaren adierazpena zen, beharbada. Horregatik, Arimen egunaren ondotik ospatu ohi zen". Ga-

Gabiria aldeko gaztaina mota berezienak



Aita Julian Alustiza 'Aztiri'-k, 'Euskal Baserriaren inguruan' liburuan, Gabiria aldeko gaztaina mota berezien zerrenda biltzen du.

'Andra Mari gaztaina' genuen lehenengo heldu ohi zena. Egosita jateko oso ona. Ordizia aldean saltzeko ere ez txarra, goi-gaztaina baitzen. Hamaika etxe-koandrek pozik bildu ohi zuten, gero azokan saldu eta Andra Maritarako nahi zitezkeen gauzak zuzentzeko.

'Azpeiti gaztaina'. Gaztaina-mota honentzat ere ez zen aitzaki haundirik: ale ederra baitzuen, xabal-xabala. Egosita jan ohi zen gehienetan.

'Bizkai gaztaina': ale muttur luxea zuen oso. Eta gaztaina goxoa zen jateko ere, nahiz egosita, nahiz erreta.

'Artaloea'. Gaztaina-mota hau izango zen gure eskualdeetan alerik handiena ekarri ohi zuena. Zakar xamarra nahi izatera, baina jendea ez zegoen bertan behera uzteko.

'Elorri gaztaina'. Ona hau ere.

'Kirimahatsa'. Ale elkor xamarra izaten zuen gaztaina mota honek. Danbolinean erreta jateko, ordea, ez zen batere txarra.

'Ahuntz gaztaina'. Honek zukeen alerik zatarrena ere. Erreta jan ohi zen beti. Eta nahiz-ta elkorra izan bere alea, ez zen gaztainadietan askotzarik geldituko, basurdeak eta beste gizendu beharrez.

birian eta Mutiloan garai batean egiten zen 'Gaztainerre' egunaren nondik norakoak biltzen ditu 'Aztiri'-k bere liburuan: "Domu Santu egunez egiten zen. Goizetik etxe-koandrea, bere argizari, olata (opil) eta guzti, meza na-

gusira joan ohi zen, eta gero eguerdian bazkaria egiten zuten, 'baina entierroetan bezala: barbantzu eta haragi egosia'; eta ondotik, gaztainerre jana. Eta zenbat aldiz, egun horretan bertan, baina arratsaldeko Arimen elizkizunaren on-

dotik izaten zen 'gaztainerre jana' delakoa; eta familia giroan beti".

Gaztainaren akabera

Gure basoetan gaztainondo asko izaten bazen ere, gaitzak eraman zituen gaztainondo zaharrak.

VOLVO

ANZIZAR, S. A.


**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxe:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

San Inazio, 14 **BEASAIN**
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 **ORDIZIA**
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 **TOLOSA**
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Kaletio: “Etxebizitza izatea guztion eskubidea da”

Azaroaren 13an, Idiazabalgo Udaletxeko ate aurrean aurkeztu zen Kaletio taldea, etxebizitza politikaz kezkatutik, eta etxebizitza eskubidea guztion eskubidea dela aldarrikatuz. “Gaur egun, ikasten ari den, langabezian dagoen edo lanpostu finko bat ez duen bati, ezinezkoa egiten zaio, Europar batasunean onarturiko eskubide bat izanik nor bere etxebizitza izatea”, dio Kaletio kolektiboak.

“Espekulazio garaia bizitugu eta geure begiz ikusi dugu, nola 15 milioi balio zituen etxe batek, bizpahiru urtetan bere prezioa bikoiztu duen. Neurri honek, dirua zuenak dirudunagoak egin ditu, etxe huts gehiago eragin ditu eta prezio horietan erostera ausartu direnei, bizi guztirako kate bat jarri die

bere soldataren %64raino banketxeari igorri behar dietelarik, bankuaren morroi bezala geratuz”.

Idiazabalen 278 etxe eta lokal huts

“Idiazabal gure sorteri honek, eraldaketa handia jasan du azken urte hauetan, eta ezagutu genuen nekazal giroko herri txiki hura, gaur egun industrializazioan murgildurik dagoen herri bat da. Industriaz aparte etxebizitzak ugaritu dira azken urte hauetan, biztanlerian ez delarik ikusi horrelako igoera nabarmenik”, azpimarratu dute idiazabalداررrek.

Kaletio taldeko kideek emandako datuen arabera, “287 lokal eta etxe huts daudela jakiteak, herrian dauden etxebizitza erakuntza proiektuak, biztan-



Eskakizunak

Etxebizitza publikoak eskatzen ditu Kaletio taldeak, “etxebizitza izatea, guztion eskubidea da eta ez lanpostuen loteriak eskaintzen duen pribilegio bat”.

Gazteok honoko eskakizun zehatzak proposatzen dizkie Idiazabalgo Udalari: “Jabetza pribatuarekin amaitzea gure helburuetako bat eta udalaren bete beharra dela uste dugu, hutsak dauden etxeak berreskuratu eta pertsona bakoitzaren posibilitateen arabera alokairu bat gestionatzea, horrela bigarren etxea dutenei, alokairuan udalari eman eta honek alokairu duin bat bermatzea eskatzen dugu”.

leriarri begira baino dirua irabazteko eginak direla pentsarazten digu”. Hone- la, Udalaren jarrera salatu nahi izan dute. “Gure ustez, herritarren nahiak bete baino, azken urte hauetan, udalaren gestioak,

banketxe, konstruktora edo inmobiliariekin negozioak egitera mugatu dira. Guztiona den lurrarekin tratatu txarrak eginez. Nola jasan dezakegu hainbeste etxe huts egonda, berriak egiten aritzea?”.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa:
auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Laura Tisalema

Ekuadorretik Goierrira

Urtarrilean bost urte egingo ditu Laura Tisalema Ekuadorretik Euskal Herri-
ra etorri zela. Iruñera iritsi
zen lehenengo. Geroxeago
etorri zen Lazkaora, negu-
tegietan lan egitera. 3 se-
me-alaba utzita etorri zen,
etorkizun hobeago baten
bila eta aldi berean senar
ohiaren presiotik ihesi.

Lazkaon lortu zuen pa-
perak arautzea. 2001. urte
hasiera zen hura. Lazkaon
negutegietan lan eginda
gero, beste lan batzuetan
ere aritu zen Laura, "negu-
tegietan lanean aritzea oso
lan gogorra baita", dio.
Madriren, Azpeitian... aritu
zen lanean, Beasainen,
Gurutze Gorrikoek, etxeko
laguntzari buruzko
ikastaroaren berri eman
zioten arte. "Ikastaroan ha-
si, prestatu, eta lanean ha-
si nintzen. Gogorra izan
zen hasieran, sekula ez
bainuen adineko pertso-
nekin lanik egin. Alzheimerra
zer zen ere ez nekien".
Hori bai, prestakuntza
gehiago edukitzea gustatu-
ko litzaiokeela azpimarratu

du behin eta berriz, adine-
koak hobeto ulertu eta
zaintzeko.

Etxeko etxeko laguntza
zerbitzua eskaintzen duen
enpresa batean lan egiten
du Laurak, astelehenetik
ostiralera, adineko perso-
nak zaintzen. Larunbat eta
igandeetan ere aritzen da
bere kontura.

Laurak behin eta berriz
azpimarratu duenez, zor-
tea izan du, momentuz
behintzat, oso gustura da-
go. "Oso jende jatorra aur-
kitu du inguruan".

Seme-alabak ere etortzekoak dira

Ekuadorretik ateratzea oso
gogorra izan zen Lauraren-
tzat, han utzi baitzituen,
garai hartan, 8, 5 eta 3 ur-
te zituzten seme-alabak.
Gogoratzearekin bakarrik,
malkoak ateratzen zaizkio
Laurari. Senar ohiarekin
ere arazo bat baino gehia-
go izan zituen: "Ekuado-
rreko gizonezkoak oso
matxistak dira. Han eta he-
men haurrak dituzte baina
ez dute ardurarik hartzen.



"Kultura ezberdina izateak ere sortzen ditu zailtasunak. Pertsonekin ez dakizu nola ireki, baina pixkanaka barremanetan hasi eta integratzea lortzen da".

Gainera tratatu txarrak, ja-
rraipenak, irainak... dene-
tik jasan behar izan dut,
bai nik eta bai nire guraso-
ek ere".

Dena den, aurtengo
Gabonetan opari ederra ja-
soko du: hiru seme-alabak,
Beasaina etorriko bai-
tira, bere amarekin bizitze-
ra. Lehenengo haurren
zaintza eskubidea lortu be-
har izan zuen. "Familia ber-
riz elkartzea lortu dut.
Horretarako hainbat baldin-
tza bete behar izan ditut:
etxebizitza batean ba-
karrik bizitzera derrigor-
tzen dute, horrekin batera,
errenta aitorpena, gutxie-
neko nomina... eskatzen
dituzte. Poliziak etxebizi-
tza ikuskatzen du. Oso zo-
rrotzak dira. Asko kostatu
zait baina lortu dut. Atze-

rritar legea oso gogorra
da".

Etxebizitza merke bat
erosteko aukera izan du
Laurak, lanean ezagutu
zuen adineko pertsona ba-
ti esker. "Orain mailegua
ordaintzen ari naiz", dio
Laurak.

Hurrengo erronka euskara ikastea

Euskara ikasten hasteko
gogoia ere badu Laurak.
Orain arte lanak baldintza-
tu badu ere, ahalegina egi-
tekotan da. "Seme-alabek
ere ikasiko dute eta be-
raiekin ulertzeko euskara
behar dut. Lanerako ere
ondo etorriko zait".

Gustura dago Goierrin
eta ez du bere jaioterrira
itultzeko asmorik, orain-
goz behintzat.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. No. 649 RPS. 184/02
TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913


kutxa
gizarte ekintza

Debaldeko iragarkiak

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasaingo erdigunean, guztiz eraberritutako atikoa salgai. 2 logela, sukalde amerikarra, bainugela eta trastalekua. 660836723.

Idiazabalen, Kale Nagusian pisua salgai. 100 m². 3 logela, egongela handia, 2 bainugela, sukalde jantzia, bi balkoi eta trastalekua. Mobleztatua. 679333579.

errentan eman

Beasainen, etxebizitza alokatzen da. 665752121. 20:00etatik 22:00etara deitu.

Beasainen, Dulce Maria Loizakalean pisu berria alokatzen da. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Altzariak jarrita. Dena estrenatzeko. 609030243.

errentan hartu

Lazkaon edo inguruetan etxebizitza errentan hartuko nuke. 617127693.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Haur baten betaurrekoak, galdu ditugu, urriaren 17an, Ataunen, Lazkaon edo Seguran. Titanozkoak, urdin argiak. 943801334.

PARTZELAK

salgai

Lazkaon, partzela urbanizatua salgai. Inmobiliariak izan ezik. 17:00etatik aurrera deitu. 658704793.

ANIMALIAK

salgai

Zaldi hispano-arabea salgai. 5 urtekoa. Kapatua. Oso mantsoa. Hezi gabea. 1.000 euro. 656723131.

Aharia salgai. Gaztea eta ona. 943885102.

opari

Artzain txakurra opari. 3 hilabetekoa. 943885102.

BESTELAKOAK

erosi

Bigarren eskuko mahaiak, aulkiak, sukaldeko altzariak nahiko genituzke. 616968407.

salgai

Masajea emateko ohatila edo kamila salgai. 610036043.

Ataungo intxaurrak salgai. Tamaina ezberdinekoak aukeratu. 943028477.

Pulson 330 ultrasoinua salgai. Gyma marka. 1 MHz, 3 MHz. 2 buru. 609601310.

Eskiatzeko botak salgai. 2 urte. Oso egoera onean, oso gutxi erabiliak. 600225673.



GUKlan
BAINUKO OSAGIAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



URRAKI BIDAIAK
OVER Taldea

Abenduko zubia:
Eskia Saint Laryn
123,25 euro

Kale Nagusia 42, behea BEASAIN
Tel./Faxe: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

IBILGAILUAK

salgai

Citroen Xsara salgai. 2.0 i, 16 v. Egoera onean. SS-BK. 636375323.

Honda CR 250 cc. kroseko motorra salgai. Egoera onean. 95. urtekoa. 18:30etik aurrera deitu. 665741808.

Aprilia SR Replika scooterra salgai. Azkeneko modeloa. Egoera onean. 18:30etik aurrera deitu. 665741808.

Suzuki RMX 50 motorra salgai. 2002koa. Ondo zaindua, extrekina. 680799653.

Ford Escort Nomade 1.8 i txuria salgai. 1994koa. Prezioa: 900 euro. 651705011.

Aprilia SR Racing 49 cc scooterra salgai. 99. urtekoa. Urez errefrigeratua. Egoera onean. 658747902.

Opel Astra Sport DTI salgai. 2001 urtekoa. 68.000 km. 653011355.

Opel Corsa 1.7 salgai. 2001 urtekoa. 33.000 km. 629416360.

Land Rover Discovery 2.5 Td salgai. 11 urte. 6.600 euro. 652737158.

VW GoldfTDI salgai. Lau urtekoa. 90 zaldi. 658711718.

Suzuki mendiko motorra salgai. 50 zaldi. Prezio interesgarria. 943882472 - 658711718.

Renault 19 salgai. 16 v. 91. urtekoa. Extrekina. Prezio interesgarria. 650221487.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

LANA

eskaerak

Neska edo emakume euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943085602 - 656777471.

eskaintzak

Klinika auxiliarduna eskaintzen da hortz klinika batean lan egiteko. Esperientziaduna. 27 urte. 635752398.

Emakumezkoa lanerako prest dago: edozein motatako garbiketarako, gauetan adineko pertsonak zaintzeko, promoziorako, supermerkatuetarako... Paperak arautuak. 670376201.

Emakumezkoa lanerako prest dago: edozein motatako garbiketarako, gauetan adineko pertsonak zaintzeko, promoziorako, supermerkatuetarako... Paperak arautuak. 616889923.

25 urteko neska euskalduna prest dago, goizetan, dendetan zein haurrak zaintzen lan egiteko. 652829655.

Haurrekin esperientzia

duen 20 urteko neska euskalduna, prest legoke arratsaldeetan haurrak zaindu edo klase partikularrak emateko. 615708039. 15:00etatik aurrera deitu.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Eikargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



**FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA**

Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA



autonomoentzako eta mikroenpresetarako mintegiak

Zer behar dut Internetera konektatzeko?

Posta elektronikoa, Web orrialdea, etab. eduki nahi badituzu, **merkatuan aurkituko dituzun aukerak eta horietatik egokiena aukeratzeko irizpideak** erakutsiko dizkizugu: banda zabalera, ADSL, MODEM kablea, tarifa finkoa...

Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

Goierrri - Urola Garaia
azaroak 30
ORDIZIA
Goierrri Lanbide Eskola

Ordutegia: 18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:


902 252 595

www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Elkartasunaren Erakundeak
Elkartasunaren Erakundeak





Ormaiztegiako Bardularrak eskubaloia taldea, 80. urtean

Zutik ezkerretik eskuinera: Leo Aierbe, Joxe Mari Aierbe, Andoni Apaolaza, Alex Irizar, Joxe Anjel Etxeberria, Joxe Mari Larrañaga, Xabi Irizar, Juani Zaldúa eta Juan Kruz Gaztañaga.

Pikotxean: Juanjo Manzísidor, Aurelio Magallanes, Tomas Eskisabel, Joxe Mari Goikoetxea, Iñaki Apaolaza eta Joxe Mari Gonzalez.

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
KARROZERIA OLABERRIA
☎ 943 88 43 01

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

ZUZENKI
A HOLKULARITZA

Abokatuak

**Enpresen asesoria
eta gestioa**

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosegi, 16 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net

ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..


Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak

...

Lan bertikalak S.L.

Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Migdaïla



Gizonezkoak eta emakumezkoak

negua-invierno 2004

moda eta osagaletan aholkulari

